

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko uztailaren 06tik 12rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/07/06

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko uztailaren 1ekoa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, honako honetako zenbait akats zuzentzen dituen: 2024ko ekainaren 7ko Ebazpena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita eguneroko prentsaren sektoreko hitzarmen kolektiboa. **13891 xedapena- 1 or.**

2024/07/09

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko ekainaren 27koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita ikus-entzunezko lanen ekoizleen eta haietan lan egiten duten aktoreen arteko lan-harremanak arautzen dituen III. hitzarmen kolektibo estatalaren akordio partziala. **14061 xedapena- 5 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko ekainaren 27koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita eskubaloi profesionaleko V. hitzarmen kolektiboa. **14063 xedapena- 22 or.**

2024/07/12

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko uztailaren 3koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita akuikulturako VII. hitzarmen kolektibo estatalean 2024rako soldatak berrikusteko akordioa. **14289 xedapena- 4 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/07/10

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Arrantza-sektorea. Titulu profesionalak.** 660/2024 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, zeinaren bidez aldatzen baita 36/2014 Errege Dekretua, arrantza-sektoreko titulu profesionalak arautzen dituen arrantza-flota antolatzeari buruzko abenduaren 27ko 1044/2022 Errege Dekretuan aurreikusitako arrantza-ahalmenaren erregularizaziora egokitzeko. **14082 xedapena- 4 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** 665/2024 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, zeinaren bidez aldatzen baita Gizarte Segurantzako beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorra, abenduaren 22ko 2064/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsia. **14086 xedapena- 8 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketa.** 666/2024 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, honako hau aldatzen duena: 292/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, zeinaren bidez arautzen baita Itsasoko Gizarte Institutuaren itsasoko eta osasuneko lanbide-heziketara sartzeko prozedura eta heziketa hori emateko araubidea. **14087 xedapena- 7 or.**

2024/07/11

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Titulu akademikoak.** Honen akats-zuzenketa: 610/2024 Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Larrialdi eta Emergentzietako Medikuntzako mediku espezialistaren titulua ezartzen duena eta Familia eta Komunitate Medikuntzako mediku espezialistaren titulurako prestakuntzaren zenbait alderdi eguneratzen dituen. **14141 xedapena- 1 or.**

2024/07/12

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2024ko uztailaren 4koa, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez ezartzen baita zer baldintzatan erabili behar den sinadura elektronikoa ez-kriptografikoa interesdunen eta Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu

Idazkaritzari atxikitako Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen arteko harremanetan. 14211 xedapena- 3 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/07/08

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** 1/2024 FORU ARAUA, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen.. 3291e xedapena- 37 or.

2024/07/10

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** IRAGARKIA, arau honen huts-zuzenketari buruzkoa: 1/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen. 3347e xedapena- 1 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO